

## 7. ARIKETA

*Gure historia da etorkizuna* (Estes 2020) liburuko 7. atala irakurri eta gero, behean dagoen aukera anitzeko proba egin. Hausnarketa galdera erantzuteko, gogora ezazu J. Azurmendik bere testuan (2011) zer esan zuen.

### 1. Estes-en arabera, erresistentzia indigenaren arbasoak borrokatu ziren...

- A. kolonialismoaren aurka.
- B. bizitza indigenaren alde.
- C. bidezko harremanak izateko senide gizatiar eta ez-gizatiarrekin eta bizitzarekin.
- D. (aurreko guztiak)

### 2. "Askatasun indigena", kontzeptu gisa,...

- A. existitzen ez den toki bat da (utopia bat).
- B. toki bat da, une batez #NoDAPL kanpamentuetan gorpuztu zena.
- C. bateragarria da beste askatasun kontzeptu guztiekin.
- D. erlazionaltasunaren aurkakoa da.

### 3. #NoDAPL kanpamentuak antolatu ziren...

- A. janaria eta lege-aholkularitza ordaintzeko.
- B. beharren arabera; doako janaria, hezkuntza, osasun-arreta eta lege-aholkularitza bermatzeko parte hartzaile guztiei.
- C. irabaziak banatzeko; eta janaria, hezkuntza, osasun-arreta eta lege-aholkularitza bermatzeko indigena guztiei.
- D. armak eta atxilotuak ezkutatzeko.

### 4. Estes-ek dioenez, Obamaren administrazioaren garaian beltz-jendeen aurkako polizia-indarkeria...

- A. areagotu zen.
- B. gutxitu zen.
- C. ez zen sakonki areagotu, ezta nabarmen gutxitu ere.
- D. ez du zerikusirik Black Lives Matter mugimenduarekin.

**5. #NoDAPL borroka babestu zuten...**

- A. hainbat erlijio-taldek.
- B. justiziaren aldeko nazioarteko erakundeek.
- C. beterano militarrek.
- D. (aurreko guztiek)

**6. Kolonialismoak mendeetan zehar egindakoa desegin dezake bakarrik...**

- A. kapitalismo berde batek.
- B. politikari demokraten eta errepublikarren batasunak.
- C. lur eta bizitza ebatsien berreskurapenean oinarritutako aldaketa erradikal batek.
- D. (ezin du ezerk desegin)

Hausnarketarako galdera: **Filosofia unibertsal baten aldamiarik gabe, zer ote da gaur egun borroka, utopia, itxaropena... pentsatzea?**